


5. KANALAK

Garrantzitsua da jakitea erabakigarria dela bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko. Honakoak dira enpresa edota erakunde batek aukera ditzakeen kanal motak, adibidez: Bezeroengana iristea kanal propioak erabiliz (denda propioak, ohikoak zein online motakoak, eta komertzialak).

Horrela, hilabete batzuk egongo gara eta irabazitako diruarekin telebistan gure aulkiaren berri eman eta tokiko irratietan ezagutzera eman arte.



Aulkiak Barakaldoko La Florida kalean dagoen Farmazia batean banatuko ditugu eta bananduko ditugun kartelak hauek izango dira. Eskuz emango ditugun kartelak txikiagoak izango dira eta kristalean egongo direnak handiagoak



Beste aldetik sare sozialak erabiliko ditugu gure produktua pomezionatzeko, eta modu honekin gure bezeroek berri guztiak jakingo dituzte. Instagrameko kontua bat edukiko dugu, eta atal bat edukiko du linka batekin non zuzenean bidaliko zaitu gure web-orrialdera.

Instagram: @ipai_gurpilaulkia
(https://www.instagram.com/ipai_gurpilaulkia/)

Gure instagramen kontuan informazioa publikatuko dugu, deskontu kupoen zozketak ere egingo dugu

Oso egingarria ikusten dugun beste komunikazio-bide bat Barakaldoko eta inguruko etxebizitza gehienetako postontzietan sartzeko panfeloak dira. Honekin egiten duguna da, adin guztietako pertsona askori ailegatzea. Normalean jendeak postontzian dituen panfleto edo kartelek ez diete kasurik egiten eta zakarrontzira botatzen dituzte, baina beste atal batean esan dugun bezala, aulkiak saltzen hasten garen lehen hilabetean % 30eko beherapena egingo dugunez, guk uste dugu nahiko jende interesatuta egongo dela.